

Abarak

GORKA BEREZIARTUA

Londresen rock and rollak ez duela dirurik emanen?

RocknRolla. Zuzendaria: Guy Ritchie. Aktoreak: Gerard Butler, Tom Wilkinson. Britainia Handia, 2008. 114 minutu.

Guy Ritchiek problema bat izan du orain dela gutxi arte: hedabideek gehiago hitz egin dutela bere emaztearekin zuen harremanaz, bere filmetaz baino. Gertatzen da, Madonnarekin ezkontzen zarenan. Bukatu da erromantze hori, eta, –kasualitatea?– film berriarekin ospatu du.

Zuzendariaren filmografia ezagutzen duenak badaki zer espero dezakeen: *Lock & Stock* eta *Snatch* pelikulak bezala, *RocknRolla* ere elkarren artean korapilatzen diren istorioekin atondu du. Kokotelean nahastu ditu, oster, gangsterrak, lapurretak eta ipurkaleetako giroa. “Bat-Bi” izeneko pertsonaiak (Gerard Butler) eta bere lagunek, arazoak dituzte Lenny Colekin (Tom Wilkinson). Dirua zor diote. Bi milioi. Eta Cole da Londresko etxebizitza negozioren zikinkeria guztiak manatzen dituen. Hobe zorra kitatzea, horretara-



ko lapurreta handi bat egin behar bada ere. Nori lapurtuko, eta Colekin negoziotan dabilen Uri Omovich (Karel Roden) enpresari errusiarrari. Gainera, “Bat-Bi”-k harreman bitxia hasiko du Omovichen diru kontuez arduratzen den Stellarekin (Thandie Newton). Eta horrela, artilezko pilota lehoi batek jolasteko modukoa bihurtuko da, batez ere Lenny Colen semea azaltzen denean: rock izar drogazale bat, prentsak hiltzat jotzen duena.

Momentu batzuetan tentsioa falta badu ere, gustura utzi ninduen; tripak bota beharrean egin nuen barre sekuentzia batzuetan. Aurreko lanen formula gutxi gora behera errepikatzeak, egia da, sorpresa kentzen dio, baina Ritchieren estiloa garatzen ari da, hau ez da aurrekoen kopia hutsa.

Bukatzeko, bi ohar labur, filma ikusi ondoren irakurtzeko. Bat: Soinu banda iPodean eramateko modukoa da, baietz? Bi: Omovichen koadroa MacGuffin bat da. Segi Wikipediara, azken hori zer den jakin nahi baduzu.

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herra:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: _____ Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Talioiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitate: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

Aukeratu ongietorri oparia



“Kirolaz badakit”
mahai-jolasa



“888 txiste”
liburua



“Txoriak txori”
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2009ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian

argia